

Landa Ingurunearen Garapeneko Batzordeak, 2010eko ekainaren 30ean izandako bileran, GIPUZKOAKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAREN ETORKIZUNA BERMATUKO DUEN MARKOA DEFINITZEAri buruz, txosten hau onartu zuen

T X O S T E N A

**(Talde Txostengilearen txostenaren testua zuzendu egin da,
Batzordeak onartutako erabakiaren arabera)**

AURKIBIDEA:

- Sarrera
- Abiapuntua: AMIA eredia
- Etorkizuneko gakoak
- Administrazioaren zeregina

SARRERA:

Lau hilabetetan zehar, hainbat entitatetako ordezkarien eta esparru desberdinetako adituen 27 agerraldi egon dira, horiek guztiak txostenaren gain esperientzia zabala dutenak. Hauen ekarpenak biziki interesgarriak izan dira, eta oso erabilgarriak, eta batzorde txostengileak aurreikusitako helburuak bete dituzte.

Batzorde txostengilearen hasierako bileran, Gipuzkoako nekazaritza sektorearen egoeraren diagnostikoaren txosten bat aurkeztu zen. Dokumentu hori, agerraldia egin duten pertsona guztientzako gida edo abiapuntua izan da, eta horretan oinarrituz, bakoitzak, bere ezagutza esparrutik egoki zeritzen ekarpenak egin ditu.

Informazio guztia eta jasotako iritziak aztertu ondoren, txosten honen helburua da, modu garbian eta eskematikoan, Gipuzkoako Foru Aldunditik sustatu behar den nekazaritza politika zehazteko gakoak ematea.

ABIAPUNTUA: AMIA EREDUA.

Sektore baten etorkizuna planteatzerakoan, ezinbestekoa da, guztion artean, baterako diagnostiko batetik eta indar, ahultasun, mehatxu eta aukeren eredu batetik abiatzea.

Batzordean aurkeztutako diagnostikoaren hasierako txostenak AMIA bat zekarren, eta hau, agerraldi desberdinetan egindako ekarpenak aztertu ondoren, onartu egin da, baina ñabardura batzuekin.

Azterketa horren ondorioz, eredu hori honela zehaztuta geratuko litzateke:

INDARGUNEAK:

- Nekazaritzaren sektoreak funtsezko egitekoa du lurraldearen mantentze fisikoan, eta ingurumenaren eta kulturaren mantentzean.
- Aintzatetsitako kalitatezko produktuak egiten dira (gaztak, ardoak, barazkiak, ezti, arrautzak, etab.)
- Kontsumitzaileak aintzatesten eta baloratzen dituen kalitatearen bereizgarri desberdinak daude.
- Berezko eraldaketaren bidez, balio erantsi handia ematen duten azpi-sektoreak daude: Idiazabal gazta, txakolina, etab.

- Elkarte profesional dinamikoak ditugu, baina abeltzaintza sektore profesional jakin batzuetara mugatzen dira.
- Esne behien sektore kooperatibo dinamikoa dugu, eta abeltzaintza sektorearen interesak aurretik jarri behar lituzke.
- Antzeman da sartu berri diren gazteek sektorearen profesionalizazio baten alde egiten dutela.
- Ondo dimentsionatutako ustialekuak daude, instalazio moderno eta lehiakorrek, eta Europako edozein herrialderekin parekatu daitekeen profesionalizazio mailarekin.

AHULGUNEAK:

- Gaur egungo lurralde antolaketaren politikak kalte egiten dio nekazaritza sektorearen eta landa ingurunearen biziraupenari.
- Nekazaritza sektoreak BPGean duen ekarpena geroz eta txikiagoa da, eta gutxitzen doa.
- Bezeroekiko negoziazio ahalmen mugatua duen sektorea da.
- Enpresa dinamismo txikia du. Hein handi batean administrazioak zuzentzen duen sektore bat da.
- Titularren batez besteko adina oso altua da.
- Belaunaldi ordezkapenaren tasa baxua da, eta aurretik sektorearekin harremanik izan ez duten nekazari berrien kopurua oso txikia da.
- Nekazaritza lurzorua lortzea zaila da eta haranen behealdean artifizializazioa handia da.
- Oro har, nekazaritza ustiapenen neurriak oso txikiak dira. Oro har, profesionalizazio baxua dute eta “ekoizpenaren” pentsamolde tradizionala, jabetzarekiko atxikimendu handia eta bultzada berritzaile eza.
- Gipuzkoa, mendi gune gisa sailkatuta dago, eta ekoizpenak kostu handiak ditu.
- Okupazioen araberrako produktibitateak ertainak-baxuak dira.
- Merkaturatze sareak ez daude oso garatuta eta, gehienetan, beste batzuen eskuetan daude.
- Sektore kooperatiboa, esne behien kasuan izan ezik, ez dago oso garatuta.
- Prestakuntza mailak baxuak dira, ustiapen profesionaletan izan ezik, eta beharrezkoa da ekoizpen eta merkaturatzearen nekazaritza elkarrekin gehiago garatzea.
- Adore eza orokor bat dago, errentagarritasun ezarengatik eta etorkizunak ziurgabea dirudielako.
- Baserritarren autoestimua eskasa eta sona sozial eza nabaritzen da.
- Paisaia eta ingurumen iraunkortasuna mantentzen egindako lanaren onarpen sozial eta ekonomikorik ez dago.

MEHATXUAK:

- Nekazaritza politikak geroz eta garrantzi gutxiago du erkidegoaren aurrekontuan, eta etorkizunean laguntzak asko murriztuko dira.
- Europar Batasunak dimentsio handiko ekoizpen ereduak eta erdi industrialak babesten ditu, mundu mailako merkatuetan lehiatzeko gaitasuna dutenak; ez, aldiz, familia mailako ekoizpen ereduak.
- Ekoizpen eskubideak, kuotak, prezioak eta nekazaritza merkatuak liberalizatzeko joera bat dago.
- Erkidegoko eskakizunak geroz eta handiagoak dira, eta ekoizpen eta burokrazia kostuak areagotzea dakarte.
- Merkatuko prezioen hegazkortasuna errealitate bat da eta arautzeko oso zaila da; ekoizlearengan ziurgabetasun handia eragiten du.
- Hiriak eta azpiegiturek nekazaritza lurzoruan presioa egiten jarraitzen dute.
- Laguntzak bananduz joateko joera, horrek ekoizpenak bertan behera uzteko daukan arriskuarekin eta landa ingurunean dituen ondorioekin.
- Gaur egungo lurraldea antolaketaren politika, landa ingurunearen kontserbazioaren aurretik hirigintza erabilerak lehenesten dituena.

AUKERAK:

- Merkatu handi baten gertutasuna da gure aukera handia.
- Dagoen eskaerarekin alderatuta ekoizpen maila baxua dugu, eta eskaera horrek, hein handi batean, erosteko ahalmen handia du.
- Lehiakortasuna hobetzeko gaitasun handia dago, hainbat sektoretako kooperatiba eta elkartegintza kultura eta horien arteko harremana garatuta.
- Euskadik eta Gipuzkoak sona ona dute gastronomiari eta bere produktuen kalitateari dagokienez.
- Kalitate bereizgarriak ditugu, egiaztatutako esperientzia eta arrakasta dutenak.
- Kalitate marka berri bat sortzeko beharra, bertako produktua (baserriko produktuak) eta gainerakoak argi bereiziko dituen, eta bermatuko duena abereen elikaduraren gaineko kontrola badagoela eta nekazaritzan transgenikoak ez direla erabiltzen.
- Ekoizpen ekologikoak eta integratuak ibilbide garrantzitsua du merkatuan.
- Ekoizpena dibertsifikatzea, kontsumitzaileen eskakizunetara egokituz, funtsezko aukera da. Kontsumo ohiturak izaten ari diren bilakaerak aukera sorta ederra eskaintzen du, batik bat kalitatezkoak eta naturalak diren produktuei —trazabilitatearen etiketatzean politika serioa eta derrigor bete beharrekoa eginda— eta nutrizio balioak eta balio funtzionalak dituzten produktuei dagokienez.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien (IKT) garapenak, merkaturatzeko modu berrien ateak irekitzen ditu.

- Zirkuitu laburreko merkaturatze baliabideak ezartzea, eta merkatuetara eta produktuetara egokitutako merkaturatze zirkuituak indartzea.
- Helburu berriei heltzeko prest dauden ekoizleen artean dagoen elkartze oinarria.

Laburbilduz, Gipuzkoako nekazaritza sektorea, bere egiturari (nekazaritza aktiboak) eta dimentsio ekonomikoari dagokienez, ahultasun egoera batean dago, zifra eta bilakaera kezkarriekin, eta errentagarritasun muga oso eskasekin. Hala ere, ulertzen da gure lurraldearen ingurune naturala, kultura eta idiosinkrasia mantentzeko funtsezko zeregina duela. Halaber, nabarmendu egin behar da kalitatezko elikagaiak ekoizteko duen egiaztatutako gaitasuna, eta aukera asko eskaintzen dituen gertukoa eta zorrotza den merkatu bat dagoela.

ETORKIZUNERAKO GAKOAK:

Gipuzkoako nekazaritza eta abeltzaintzaren etorkizuna, errentagarritasunaren ikuspegitik planteatu behar da. Errentagarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenarekin lotua. Garapen iraunkorraren bide horretatik ibiltzen jarraitzeko, gako edo erronka batzuk topatzen ditugu, eta horiei aurre egin behar diegu:

- 1.- Zatikako lurralde planetan (ZLP) eta arlokako lurralde planetan (ALP) jasotako lurraldea antolatzeke politiken irizpideak aldatzea, lurzoru baliabidearen optimizazioa eta zentzuzko erabilera lortzeko.
- 2.- Nekazaritzaren aktiboak (baserritarrak): belaunaldi ordezkapena, aurrejubilazioen politika aktiboekin, nekazaritza jardueran hasten direnei eta prestakuntzari lagunduta (Artzai Eskola eta Fraisoro).
- 3.- Nekazaritza produktuen prezioen egonkortasuna.
- 4.- Ekoizpenaren egituratzea eta berrikuntza.
- 5.- Merkaturatzea.
- 6.- Ondasun publikoen hornidura eta ingurumenaren kanpokotasun positiboak. Gizartearen onarpena
- 7.- Nekazaritza errenten dibertsifikazioa.
- 8.- Bizitza kalitatea landa ingurunean.

Etorkizuneko arrakastaren oinarria erronka horiei batera erantzun jakitean egon liteke, baita gizartearen barruan, sektore estrategiko gisa, leku garbia irabaztean ere.

Jarraian gako horietako bakoitza aztertuko dugu.

1.- ZATIKAKO LURRALDE PLANETAN (ZLP) ETA ARLOKAKO LURRALDE PLANETAN (ALP) JASOTAKO LURRALDEA ANTOLATZEKO POLITIKEN IRIZPIDEAK ALDATZEA, LURZORU BALIABIDEAREN OPTIMIZAZIOA ETA ZENTZUZKO ERABILERA LORTZEKO:

Gipuzkoa oso lurralde hiritar eta populatu gisa antzematen den arren, hiritartutako lurzorua portzentajea, osoaren % 6,5 da. Dena den, onartu behar da artifizializatutako lurzoruak dela balio agrologiko handiena duena. Kontuan izanik lurraldearen % 63 basoa dela eta % 20 babestuta dagoela, nekazaritza eta abeltzaintza erabileretarako % 30 geratuko litzateke, 60.000 ha inguru, kopuru esanguratsua. Halaber, basoaren azaleraren barruan, abeltzaintza ekoizpen jakin batzuetarako baso artzaintzarako guneak prestatzeko aukera egongo litzateke.

Gakoa da lurzoru horiek nekazaritza jarduerarako erabili ahal izateko mekanismoak ezartzea; horretarako, funtsezkoa da argi eta garbi zehaztea lurralde antolaketaren bidez nekazaritza eta abeltzaintzarako erabiltzeko lursailak zeintzuk diren, beste interes edo sektoreekiko lehia saihesteko. Era berean, ezinbestekoa da gutxiegi erabiltzen diren lursailak berreskuratzea ahalbidetuko duen arautegia idaztea, eta lurzoruen katalogo bat egitea, lurzoru eta erabilera desberdinen identifikazioa jaso dezana. Puntu honetan, ETORLUR enpresak kudeatzen duen lur bankua ezinbesteko tresna bihurtzen da.

Lur bankuak, bitartekari lanak, lurzoruak eskaintzen eta eskatzen dituztenak erakartzeko lanak egin behar ditu. Gutxi erabilitako lurrak mugitzea bultzatzen duten legezko mekanismoak sartu behar dira, hobari fiskala eskainiz lur bankuari egindako lurzoru lagapenei. Mekanismo horiek jada jasotzen dira Eusko Legebiltzarrak 2008. urtean onartutako nekazaritza eta elikadura politikaren legean. Dena dela, lege hori oraindik ez da erabat garatu eta haren garapenean eragin beharko litzateke.

Era berean, azpiegituren obra handiek nekazaritza jardueraren gainean duten eragina baloratzeko eredu bat adostu beharko litzateke, eta nekazaritza lurzoruen galera modu egokian konpentsatzeko neurriak ezarri beharko lirateke, bereziki nekazaritza balio handiena daukatenei eta nekazaritza zonaldi kritikoetan daudenei dagokienez. Konpentsazio hori zehazteko garaian, kontuan hartu behar dira bai lurralde eremua, Gipuzkoa, zentzu zabal eta malguan, eta bai garatzea gehien interesatzen den nekazaritza jardueraren azpisektorea, lurzoruak konpentsatze hutsetik haratago. Lurzorurik ahulenak baratzazaintzara bideratutakoak dira, eta horregatik, ulertzen da garrantzitsua dela agroaldean esperientzia areagotzen jarraitzea, merkatuko eskaeretara egokituta.

Ustiapen elkartuak eta lurzati txikien kontzentrazioak sustatu behar dira, neurri egokiak eduki ahal izateko. Etorkizuneko nekazaritza eta abeltzaintza lurri lotuta egon behar dira, baita honen zentzuzko erabilerari ere.

Atal honetan guztian, beharrezkotzat jotzen da lur bankutik lan proaktiboa egitea.

**2.- NEKAZARITZAREN AKTIBOAK (BASERRITARRAK):
BELAUNALDI ORDEZKAPENA, AURREJUBILAZIOEN POLITIKA
AKTIBOekin, NEKAZARITZA JARDUERAN HASTEN DIRENEI ETA
PRESTAKUNTZARI LAGUNDUTA (ARTZAI ESKOLA ETA FRAISORO:**

Nekazaritza jarduerak, bestelako osagaiez gain, enpresa jardueraren alderdi ukaezin bat dauka, eta jarduera hori, profesionaltasun parametroek ez ezik, gizarte eta ingurumen parametroek gidatu behar dute. Eremu guztietatik enpresa dinamismoa bultzatu behar da, nekazaritza sektoretik, sektorearen prestakuntzaren eta gaztetzaren aldeko eta landa inguruneko gizon eta emakumeen berdintasunaren aldeko apustu erabakigarria eginda. Profesionalak behar ditugu, beren ekoizpena merkatuari egokitzeko gai izango direnak kalitateko produktuekin.

Aurrean dugun lehenengo erronka, ustiapen aktiboen belaunaldi ordezkapena bermatzea da, bai familia ondorengoen kasuan baita nekazaritza jarduerara kanpotik datozen gazteen kasuan ere. Garrantzitsua da, halaber, nekazaritza jardueran lehenengo aldiz sartzen diren gazteen kasua, nekazaritza ustiapen berriak ezartzen dituztenak.

Lurzorua erabilgarri edukitzea faktore mugatzailea da, eta gazteak nekazaritza jardueran hastea baldintzatzen du. Aldagai hori kontuan hartu beharrekoa da gure nekazaritza eskoletan prestakuntza aldian, gazte horiek nekazaritzako enpresa jardueran sartzea hobeto eta eraginkortasun handiagoz bideratzeko.

Horren haritik, azpimarragarria da GAZTENEKek azken 5 urteotan egindako lan positiboa, eta haren zeregina etorkizunean urteroko deialdien bidez indartu beharrekotzat jotzen da.

Prestakuntza, araututa dagoena, eta, batez ere, jarraitua, funtsezkotzat jotzen da sektore honen etorkizunerako. Ekoizpen kontuetan, teknologia berrietan, kudeaketan eta merkaturatzean trebakuntza jasotzea, gaur egun oinarritzakoa da gure baserrien lehiakortasunerako, eta beharrezkoa da batik bat sektoreak egin duen prestakuntza eskaerari erantzutea, genero ikuspegia txertatuta prestakuntza horretan. ITSASMENDIKOitik egiten den lana etorkizunerako ezinbestekoa eta beharrezkoa dela ulertzen da.

Prestakuntza lan horrekin batera, baserritarrei zuzendutako aholkularitza lana ere egin behar da (ezin dute denetik jakin), prestakuntzan ikasitakoa praktikan jartzen lagunduko diena, bere ekoizpenarekin lotutako gai tekniko eta ekonomikoetan.

3.- PREZIOEN EGONKORTASUNA:

Nekazaritza produktuen prezioen hegazkortasuna errealitate eztabidaezina da. Ekonomia globalaren eta merkatu irekien mundu honetan, hauen portaerak faktore ugariaren eragina jasaten du.

Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) helburu nagusietako bat, historikoki (eta oraindik) gutxieneko nekazaritza errenta bat bermatzea da urteetan zehar aldatuz joan diren neurriekin. Egungo finantza esparruan Ordainketa Bakarra izeneko abian jarri da, errenten berme gisa, izan ere, Merkataritzaren Erakundean erabakitako arauak zaildu egiten dituzte politika interbentzionistak. Azken Mundu urteotako egoerak adierazten du neurri horien eragina ez dela nahi zena izan, eta Europa mailan oso desberdina izan dela, eta negatiboa Gipuzkoaren kasuan.

NPBaren (2014-2020) erreforma berria, Europatik, nekazaritza profesionalei errenta duin bat bermatzeko helburuari dagokionez egiten den planteamendua berrikusi ahal izateko aukera bat da. Enpresaren zailtasunak gorabehera, beharrezkoa da esparru guztietatik presio lobby baten lana egitea, NPB berriak gehiago har dezan kontuan gure familia nekazaritza eta abeltzaintzaren ereduaren egoera.

Dena den, Europak erabakiko duenaren zain geratu gabe, barne izaerako jarduerak gauzatu daitezke, prezioen egonkortasunean eragina izan dezaketena:

1.- Profesionalen arteko akordioak sustatu beharko lirateke, urterokoak, esnearen, haragiaren edo sagardoaren sagarraren industriekin lotutako azpisektoreetan.

2.- Komenigarria litzateke bertako produktuen entitate komertzialak beren artean ez lehiatzea, sektorearen biziraupenaren mesedetan.

3.- Ekoizlearen diru sarreraren egonkortasuna bermatzea, ekoizleen ekarpenak dituen konpentsazio funts baten antzeko figuraren bat ezarriz sektore estrategikoetan, gutxieneko errenta bermatu dezana.

4.- Oso garrantzitsua izango litzateke Eusko Jaurlaritzak abian jarritako prezioen euskal behatokiaren lana bultzatzea estamentu guztien inplikazioarekin, bai eta inplikaturik dauden eragile guztien parte-hartzearekin ere: ekoizleak, banatzaileak, saltzaileak...

4.- NEKAZARITZA EKOIZPENA: EGITURAKETA ETA BERRIKUNTZA:

Ekoizpen ereduak sustatzerakoan, iraunkortasun irizpideak funtsezkoak dira: eredu ekonomikoki errentagarria izan behar da, ingurumena errespetatu behar du eta gizarteak onartu egin behar du. Ekoizpen intentsiboaren eta

ekoizpen estentsiboaren arteko eztabaida, horretara mugatzen da, eta aldez aurretik, ezin da baztertu parametro horien barruan dagoen horietako bat ere.

Errentagarritasun ekonomikoaren alderdian arreta jarritz (ingurumenari dagokiona eta soziala beranduko aipatuko dira), lehiakortasunari buruz hitz egin behar dugu. Nekazaritza eta abeltzaintza lehiakor bat lortzea posible da gure lehiakortasun gaitasuna murrizten duten faktoreetan eragina duten politikak eta tresnak abiaraziz. Kanpoko faktoreetan eragiteko gaitasuna oso mugatua da, beraz, ahalegin handiena barneko faktoreetan egin behar dugu. Jada aipatu ditugu horietako batzuk: prestakuntza, profesionaltasuna, belaunaldi ordezkapena, lurzorua edukitzea.

Lehen adierazi den bezala, gure baserrien ekoizpena kontsumitzaileen eskaeretara eta kontsumo ohituretara egokitu behar da. Nekazaritzan eta abeltzaintzan, ekoizpen sistemak eraginkorrak izan behar dira, nekazaritza ustiapen bakoitzak dituen baliabide propioak areagotuz eta balioztatuz, ez soilik horrek ekoizpenaren kostuak murriztea dakarrelako, baita nekazaritza lurzorua modu egokian erabiliko direlako ere. Nekazaritza jarduera, zalantzarik gabe, lurraldeari lotuta egon behar da.

Halaber, horretarako guztirako, ezinbestekotzat jotzen da gure ustiapenetan aholkularitza teknikoa edukitzea, bai ekoizpen-mailan eta bai maila ekonomikoan.

Oso komenigarria litzateke ustiapenen neurrien aldaketa eta ustiapen elkartuen sustapena bultzatzea. Ekoizpen kostuak hobetuko lirateke, eta, aldi berean, eragin positiboa izango luke baserritarren bizitza kalitatean. Zentzu horretan, lan proaktiboa egin beharko litzateke estamentu guztietatik. administratibotik, ekoizleen elkarteetatik, kudeaketa zentroetatik eta nekazaritza sindikatuetatik.

Kooperatiba sektorea bultzatu behar dugu —gutxi garatuta baitago—, premisa nagusitzat edukita kooperatiba horien kontrola baserritarrek beren gain hartzea eta mantentzea.

Ekoizpena, modu horizontalean eta bertikalean egituratu behar da. Azpisektore bakoitzean ekoizleen kooperatibak egotea eta hauek indartzea sustatu beharko litzateke, bai eskala handiko ekoizpenetan, hala nola esnean (KAIKU), haragian (URKAIKO, GITXEGI, TXERRIZALEOK), ardietan (ARTZAI GAZTA) eta basoaren sektorean, eta bai eskala txikiagokoetan, modu interoperatiboan. Halaber, oso interesgarria izango litzateke balio kate osoaren integrazio bertikala, zeharo operatiboak diren profesionalartekoak sortuz. Batzordean aurkeztu den Trentoko esperientzia, alderdi horretan, jarraituko beharreko eredutzat jotzen da.

Administrazioak, kooperatiba espirituari eusten dioten eta ekonomizista bakarrik ez den espirituari eusten dioten enpresa jarduerak bultzatu behar ditu, sektorearekin batera.

Sektore bakoitzean behar bezalako neurriak dituzten trakzio industriak egotea oso elementu dinamizatzaile garrantzitsua izango litzateke. Gainera, beharrezkoa da ekoizpen desberdinetan berrikuntzak ezartzea, merkatuak hori eskatzen baitu: elikagai funtzionalak, IV,V eta VI gama, kontsumo formatu berriak, etab.

5.- MERKATURATZEA:

AMIA eredu adierazi den bezala, merkatu handi baten gertutasuna da gure aukera handia eta indargunea. Merkatu zabala eta heterogeneoa da, eta arrakastaren gakoa produktu bakoitzarentzat segmentu egokiena aukeratzean datza. Gure produktuak desberdindu eta ahalik eta bide zuzenenetatik merkaturatzea bilatu behar dugu, bai eta bertako produktua identifikatuko duen marka berri bat sortzea ere. Horren haritik, oso garrantzitsua izango litzateke legeria egokia edukitzea, merkaturatzeko zirkuitu laburrak indartuko dituen, lege eskakizunak ekoizpen motara modu zentzudunagoan egokituta. Gaur egun, artisau ekoizpenarentzat hain lege eskakizun zorrotzak edukitzea oztopoa da ekimen askorentzat.

Kalitate marken alde egiten jarraitu behar da eta, aldez aurretik, ez da interesgarria gerta litekeen merkaturik baztertu behar. Oso interesgarria izango litzateke Eusko Label eraldatutako produktuetara irekitzea eta egungo araudiak berrikustea, balio erantsi handiagoa bilatzeko.

Ezinbestekoa da bertako produktua argi eta garbi identifikatzea, kontsumitzailea informatzeko helburuarekin, eta bertako produktua kalitatearekin eta iraunkortasunarekin lotzea.

Merkatu batzuetarako ezinbestekoa da, HORECA (ostalaritza, sukaldaritza, catering-a) edo banaketa ertain-handia bezalako kanaletan modu sinergikoan jardungo duten ekoizleek eurek zuzendutako merkataritza egiturak sustatzea. Jantoki publikoek bertako produktuak erabiltzera aldatzea beharrezkoa izango litzateke.

Haragitarako behien azpisektorea da, agian, une honetan, ahulena merkataritza ikuspuntutik. Azpisektore horrek, halaber, egituraketa ahula dauka ekoizpenaren ikuspuntutik, oso atomizatua. Balio kate osoa modu eraginkorrean antolatzeke ahalegina egiteko unea da, gama berriko produktuetan ekoizpen eta merkaturatze egiturak sortuta eta berrikuntzak aplikatuta. Gipuzkoako hiltegiak batera kudeatzea, laguntza publikoarekin, hasierako urrats beharrezkoa da bide horretan.

Bestalde, produktu guztietarako, turismoarekin lotutako merkatuetan aukera berriak antzeman dira: dendak leku turistikoetan, delicatessen izenekoak, nekazal turismoak. Internetek, produktu desberdinak on line saltzeko eskaintzen

duen aukera ere oso garrantzitsua da; etorkizun handia duen merkatua da, zalantzarik gabe.

Merkaturatzeko bide laburrak erraztuko dituzten ekoizle eta kontsumitzaile taldeak sortzea bultzatzea.

6.- ONDASUN PUBLIKOEN HORNIDURA ETA KANPOKOTASUN POSITIBOAK. GIZARTEAREN ONARPENA:

Gipuzkoako nekazaritza eta abeltzaintza jarduera, ingurumena errespetatzen duen jarduera izateaz gain, paisaia, suteen eta higaduraren prebentzioa eta karbonoaren bahiketa bezalako kanpokotasun positiboak sortzen dituen elementu bat izan behar da. Hori guztia posible izango da, lurrari lotuta dauden eta neurri eraginkorrak dituzten nekazaritza eta abeltzaintza bat sustatzen badugu. Hauez gain, nekazaritza eta abeltzaintzak beste kanpokotasun batzuk eskaintzen dituzte, kultura eta etnografiarekin zerikusia dutenak: hizkuntza, ohiturak, kondairak. Gure paisaiak kultura paisaiak dira, non landaguneko biztanleek naturarekin etengabeko harremana izan duten. Gizarteak aintzatetsi egin behar du baserritarrek egiten duten lan hori guztia, eta aintzatespen hori jarduera zehatzetan islatu behar da; hasteko, sektoreko profesionalen irudi positiboa zabaldu behar da, horien autoestimua areagotzeko. Kontsumitzaileak jakin egin behar du, gure baserritarrek landutako produktu bat erosten duenean, kalitatezko elikagai bat eskuratzeaz gain, Gipuzkoako landagunea mantentzen laguntzen ari dela. Beharrezkoa da emakumeek landa ingurunean egiten duten lana jakitera ematea eta balioan jartzea, bai eta lan horrek baserriek bizirik jarraitzeko duen eragina ere.

Nekazaritza eta ingurumen laguntzen, 2009. urtetik indarrean daudenak, eta 2007. urtetik Europako laguntzak kobratzeko baldintzazkotasuna betetzeko baldintzaren helburua, gure ustiapenen ingurumen iraunkortasunaren bidean eragitea da. Zenbait txostengilek emandako informazioaren arabera, tresna horiek edo antzekoak, indartu egingo dira 2013tik aurrera, eta hori oso elementu positiboa dela ulertzen da.

Era berean, gure baserrien ingurumen kudeaketa hobetzeko berezko jarduerak indartzen jarraitu behar dugu: minden eta fitosanitarioen bilketa, mendiko larreen kontrola...

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduera ezinbestekoa da landa paisaia osatzeko, landare eta animalien espezie askoren habitata da. Gainera, galduz gero berreskurazina den kultur ondarea da, eta arkitektura osagaiei lotuta dago, hala nola errotrak, baserri armarridunak, dolareak, burdinolak eta beste batzuk. Hurbileko landa inguruneak hiriei aisialdirako eta jolaserako eskaintzen dizkien aukerak izugarriak dira: xendazaletasuna, zikloturismoa, natura behatu eta hartaz gozatzea, ingurumen heziketa, lurreko produktuen zuzeneko salmenta, eta abar.

Funtsezkoa da baserritarrek ingurumen iraunkortasunari dagokionez egiten duten lana aitortzea, eta, horretarako, beharrezkoa da diru sarrera batzuk ziurtatzea urte anitzeko izaerako nekazaritza eta ingurumen laguntzen kontzeptuan.

7.- ERRENTEN DIBERTSIFIKAZIOA:

Baserritarrek landa ingurunea zaintzeko eta ingurumena kontserbatzeko egiten duen lana aitor dezan errenta bat bermatu behar dute erakunde publikoek, baserritarrak guztion landa ondarearen bermatzaileak direla kontuan hartuta. Horrela, ingurumenaren kudeaketa, gaur egun administrazioek azpikontratatuta daukatena, baserritarrek zuzenean egin dezakete, administrazio eskudunek zehaztutako kudeaketa irizpideei jarraiki.

Nekazaritza jardueraren dirusarrera osagarriak bilatzea oso interesgarria dela ulertzen da. Zentzu horretan modu esplizituak aintzatetsi behar da nekazal turismoaren irudia, etorkizunean jarraitu egin behar duen esperientzia arrakastatsu gisa. Beste esparru batzuetan bezala, eskaintza bezeroen eskakizun berrietara egokitzen joan beharko da, eta kasu askotan, naturarekin eta animaliekin lotutako eskaintzaren espezializazioa lehiakortasun handi baten gakoa izan liteke.

Beharrezkoa da lanaldi partzialeko nekazari profesionalaren figura bultzatzea, aldi berean sektoreari laguntzeko moduan antolatuta egongo dena, nekazaria lanaldi osoz aritzeko aurretzeko urrats gisa.

Energia berriztagarriak ere izan litezke etorkizunerako aukera bat, bai ekoizpenean kostuak murrizteko, bai elektrizitatea saldu eta aparteko dirusarrerak jasotzeko. Energia berriztagarrien merkatuaren arautzeak eragin handia du arlo honetan, eta egungo egoeran nolabaiteko ezegonkortasuna antzematen da.

Landu beharrek arlo bat CO2aren kuotena da. Gas onen emisioak ekonomikoki zenbatzen badira, karbono balantze positiboa duten nekazaritza ustiapenek dirusarrera bat izateko aukera izan dezakete.

8.- BIZITZA KALITATEA LANDA INGURUNEAN:

Landa ingurunearen eta hirien arteko bizitza kalitatearen parekatzea, landa garapeneko politiken etengabeko helburua izan behar da. Ekipamendu eta zerbitzuen hornidura, estandar duin batzuetara iritsi behar da, eta Landa Ingurunea, bizi proiektu bat gauzatzeko ingurune erakargarri bihurtzeko laguntza izan behar da; eta jakina, nekazaritza jarduerara gazteak eta emakumeak erakartzeko faktorea ere izan behar da.

Emakume baserritarren eskubideak parekatzea lortzeko, ezinbestekoa da haien titulartasun eskubideak onartuko dituen lege-formula bat bilatzea.

Landa inguruneko emakumeen testigantzak agerian uzten du oraindik gabezia nabarmenak daudela gizarte zerbitzuena bezalako alderdietan, izan ere, adineko pertsonen zaintza, funtsean, euren eskuetan geratzen baita.

Erakundeek babes tinko eta konprometitu eman behar dute landa ingurunearen kontserbazioa bermatzeko, eta horrek berekin dakar ingurumenaren kontserbazioa, landa inguruneko kultur eta arkitektura ondarearen kontserbazioa, eta, horretarako, naturarekin lotutako aisialdi guneak sortu.

Landa inguruneko gizarte baliabideak eta informazioa hobetzeak lehenetsuna izan behar du administrazioarentzat.

Beharrezkoa da LANDAGIPUZKOA, landa garapenerako departamentu arteko organoaren egitekoa areagotzea, erronka horiei aurre egiteko gai izateko.

ADMINISTRAZIOAREN ZEREGINA:



Administrazioak lehen sektorea estrategikotzat jo eta ikusi behar du, bultzatu beharreko sektore gisa, eta sektorearekin batera zehaztu behar ditu epe labur, ertain eta luzerako helburuak. Jarraian, talde txostengile honen arabera administrazioak gauzatu beharreko helburu edo erronka horietako batzuk aipatuko ditugu:

- Planteatutako erronkek administrazio maila guztiei eragiten diete, eta, horregatik, beharrezko ikusten dugu administrazio guztiek elkarrekin koordinatuta lan egitea, sektorea estrategikotzat jota, tokiko administratziotik hasi eta Estatuko gobernura arte. Gai hau funtsezkoa da sektorearen etorkizuna bermatzeko.
- Eusko Legebiltzarrak 2008an onartu zuen nekazaritza eta elikadura politikaren legearen arau garapena beharrezkoa da.
- Administrazioak etorkizuneko azpiegitura handien inbentarioa egin behar du, bai eta horiek eragiten dieten nekazaritza lurrena ere, aurrera eraman beharreko jardueren plangintza egokia egiteko.
- Beharrezkoa ikusten dugu udal arautegiak (plan orokorrak, arau subsidiarioak...) sektorearen jardura eta behar berrietara egokitzea bultzatzea, nekazaritza ustiapen berriak sustatzeko malgutasun egokiarekin.
- Sektoreko irakasleen etengabeko prestakuntza funtsezkoa da sektoreak eskatzen dituen neurri berriak ezartzeko garaian, bai eta lurraldean ezarpen urria duten eta gero eta eskari handiagoa duten jardura berriak ezartzeko garaian ere.

- Sektoreak nahiz administrazioak bertako kontsumoak sustatzea garrantzitsua da.
- Sektore estrategikoetan konpentsazio funts bat eratzea, non nekazariak berek ekarpena egin dezaten funtsera, beharrezkoa da, gutxieneko prezioa bermatzeko eta nekazari berriak ezartzea bultzatzeko, gutxieneko errenta batzuk jasotzea bermatuko bailitzaieke.
- Beharrezkoa da administrazioak bultzatzea azpisektore bakoitzean ekoizpen unitateak biltzea dakarten ekoizpen kudeaketarako sistemak indartzea, elkarrekin lan egiteko sektorearen mesedetan.
- Osasun arautegia azpisektoreetan eta azpisektoreei egokitu eta malgutzea funtsezkoa da, nekazaritza jarduera berriak ezartzeko garaian.
- Administrazioak, bestelako estamentuekin batera (elkartek, kudeaketa zentroak, nekazaritza sindikatuak, landa garapen elkarteak...), bitartekoak ezarri behar ditu une bakoitzean nekazaritza sektoreari laguntzeko, azken honen ekimenak babestuta: diruaren bidez, azpiegiturekin, programekin, giza kapitala landa ingurunean sartzeko neurriak bultzatuta.
- Nekazaritza sektorea estrategikotzat eta bultzatu beharrekotzat jotzen da. Horregatik guztiagatik, administrazioak une oro behar besteko diru baliabideak eduki behar ditu, txosten honetan azaltzen diren sustatze neurriei pixkanaka aurre egiteko eta sektoreari benetan babesa emateko.
- Erakundeen arteko lankidetzak, planteatutako jarduera guztiak aurrera eramateko.
- Gune edo behatoki bat sortzea, irizpen honetako akordioen jarraipena egingo duena.

Donostian, 2010eko ekainaren 30ean,

BATZORDEAREN LEHENDAKARIA,



Manuel Michelena Iguaran
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES